



**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

UDAL

TXOSTENA





**KULTUR POLITIKEN, EUSKARAREN, HEZKUNTZAREN,  
GAZTERIAREN ETA KIROLAREN KOORDINAZIOA**



## EUSKARA ETA HEZKUNTZA

### EUSKARA

**X**ede nagusia euskararen normalizazioa lortzea da, hizkuntzaren ezagutza eta batez ere erabilera gehitzea dugu xede nagusia: udalerrian euskara sustatzeko ekintza plana eta udal administrazioan euskararen erabilera planaren bidez.

Helburu nagusiak hauek dira:

- Udal administrazio elebidunerantz, euskara herritarrentzako zerbitzu hizkuntza gunetaz ziurtatzea.
- Egunerako udal jardunean euskara lan-hizkuntza bihurtzeko bidean, hizkuntza eskakizuna lortua duten langileei lanerako trebatze saioak eskaintzea eta euskara langai eta bide izan dezatela lagundu.
- Udalak jendarean duen irudi korporatiboan eta kontratazio administratiboan arloan hizkuntza irizpideak finkatuta berauek betearaztea, euskararen presentzia eta eskakizuna handitze bidean.

- Derrigorrezko eskolaldian ari diren ume eta gaztetxoei eskola barruko programen osagarriak, batez ere ikasgelaz kanpoko jarduerak eskaintzea erabilera ez-akademiko naturalagoa sustatzeko.
- Gazteen ezagutza erabilera bihurtu dadin, beraien neurriko eta gustuko eskaintza kaleratzea, teknologia berriei bereziki erreparatuta.
- Transmisioari dagokionez, umea mundura datorrenetik euskal inguru iraunkor baten beharra azpimarratzea sentiberatze kanpainen bidez.
- AENOR Zerbitzuen Agiriari eustea.

Burututako ekimen nagusiak hauek izan dira:

### UDAL ADMINISTRAZIOAN

V. fasean (2013-2017) Udalak duen bitarteko nagusia langileen euskalduntze maila dugu, %55k egiaztatua du lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna eta beste %9ak dagokiona baino eskakizun bat gutxiago, Udalari dagokion lanpostuen derrigortasun indizea %36,3koa izanik.

Planaren V. faseko ardatz nagusiak hizkuntza irizpideen betearaztea da, bereziki kontratazio administratiboan esparruan, langileen formazioa lan jardunari dagokionez, udalaren irudi korporatibo elebiduna eta herritarrekin harremanak.

### UDALERRIAN

Hizkuntzaren transmisioa

Hainbat sentiberatze kanpaina zabaldu du, Bizkaiko beste udalerrri batzuekin batera eta Alkarbide bilgunearen koordinaziopean:

- *Jai berrientzat, eman giltza:* jaioberriak dituzten gurasoei zuzendutako sentibilizazio-kanpaina.
- *Eskoletan lehen aldiz matrikulatzea, euskararen dimentsioa.*
- *Dbhko 4. mailako ikasleak, nahi dudalako:* batxilerrako ikasketak eta bereziki lanbide heziketa egingo duten ikasleei zuzendua, ikasketak euskaraz egiteko.
- Euskara ikasteko laguntzak: derrigorrezko eskolaldian seme-alabak gurasoei, aisialdi eta kirol begiraleei eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dituztenei eman dira. Onuradunak 222 izan dira.

### Zerbitzuak euskaraz

- Ikusi eta Ikasi:Aisialdia eta kulturaren bidez umeei euskaraz ondo pasatzeko aukera eskaintzen duen programa da.
- Harrapazank: Gaztetxoan artean euskararen erabilera sustatzeko xedearekin dantza eta musika modu aktiboan egiten da, hasierako kastin eta geroko ikastaroa-sormen lana-ikuskizunekin.
- Galdeketaun: gazte jendeari zuzenduta eta sakelako telefonoen bidez, Bilbori eta euskal kulturari buruzko lehiaketa da.
- Biribilko: Bilboko merkataritzan euskara sustatzeko plana: web gunea handitu da eta komunikazioa eta formazio ikastaroak eman dira.

### Hizkuntzaren elikadura:

- Zinea euskaraz:Tinko eta Irudi Biziak elkartearen eskutik, eskola-ordutegiaren barruan eskaini dira.
- Zortziko txikia: Bizkaiko Bertsozale Elkartearekin, Bizkaiko Ikastolen Elkartearekin eta Bizkaia Irratiarekin elkarlanean, bertsoaritzza sustatzeko jarduera da, 32 ikastetxetan asteroko saioak eta irrati programa antolatu dira
- Metamorfosia, jendaurreko irakurraldia: Bilbo Zaharra euskaltegiarekin elkarlanean, Franz Kafka idazlearen *Metamorfosia* obra osoa irakurri zuten ekainaren 9an Arriaga antzokian gizarte sektore guztietako ordezkariak.
- Ikasarrauna, bertoko jolasen ondarea gaztetxoentzat: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin batera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleei zuzenduta jarduera da. Hezkuntzaren eremu formalean ez ezik, informaletan ere euskararen erabilera sustatzen du bereziki arraun munduari dagokionez.
- Mikoleta ipuin lehiaketa: Eskola-umeei zuzendua, parte-hartzaileen adinaren arabera lau kategoriatan banatzen dira idazlanak eta 1.048 idazlan aurkeztu dira
- Darabilbo: euskaltegien sarearekin elkarlanean, euskararen erabilera zuzena suspertzeko 50tik gora ekintzak egin dira.
- Bilboko eEuskal coaching: tailerrak eta hitzaldiak antolatu dira hainbat ikastetxetan, gazteen artean kirola eta teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzeko.

Elkarteentzako diru laguntzak, programak edo zerbitzuak euskaraz eskaintzeko

Euskararen presentzia handiagoa izateko, hitzaldi-zikloak, aisialdi-jarduerak, ikastaro bereziak, argitalpenak, txangoak, programa informatikoak, literatur lehiaketak zein jarduera osagarriak antolatzen dituzten talde eta elkarteekin lankidetzan dihardu da. 125 programa artean 644.606 euro banatu dira.

### EKIMEN BEREZIAK

Erakustaldi bik egin dira:

- “Kili-kili” aldizkariaren 50. mendeurrena
- “Euskara ibiltaria” euskararen euskalki eta hizkera desberdinak

### HITZARMENAK

Hizkuntzaren elikadura eta kalitatearen irizpidearen arabera, hitzarmenak sinatu dira hurrengo elkarteekin hainbat programa eta ekimen gauzatzeko: Euskaltzaindia, Labayru ikastegia, Euskara Elkartearen Topagunea, Bertsozale Elkarte, Bizkaiko Guraso Elkarte, Euskal Herriko Ikastolak eta Suspergintza.

### EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ekitaldi ofiziala antolatu da abenduaren 2a. Aurten Ken Zazpi musika taldea omendu da eta Bilboko Udalak bat egin du Euskararen Nazioarteko Eguneko HAKOBAREN (Hizkuntza Politika Gaietarako Herri Administrazioen Koordinazio Batzordea) adierazpen instituzionalarekin.

### AZKUE FUNDAZIOA

Bilboko Udala partaide da, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskaltzaindia, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatearekin batera. Euskararen Etxean burututako sustatze zeregin asko antolatu dira, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko asmoz, teknologiarik aurreratuenekin.

### BERBAGUNE

Ekimena antolatu da Azkuna Zentroan. Egun osoko jarduna abenduaren 14an, 1.600 lagun lau txandatan banaturik, emandako gai batzuen inguruko eztabaida izan dute seiko talde aldakorretan.



## ADIERAZLEAK

Eskola ordutako programetan parte hartu duten ikasleak: 11.764

Mikoleta ipuin lehiaketara aurkeztutako ipuinak: 1.048

Antolatutako sentiberatze kanpainen hartzaileak: 7.983

Euskara ikasteko laguntzaren onuradunak: 222

Ikusi eta Ikasi programaren ikusleak: 6.505


Harrapa Zank programan ikusleak: 1.594

Merkataritza Planean parte hartu duten establezimenduak: 4.717

Diru-laguntzetan onartutako programak: 118

Itzulitako testuen kopurua: 799 MB (837.616.532 bytes)

Berariazko trebakuntzan parte hartu duten langileak: 80





**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO



UDAL  
TXOSTENA

2016